

Gasteizen, 2022ko urtarrilaren 21ean

Osasun-egoerari dagokionez hemendik aurrera egingo diren lehen lauhilekoari eta ohiko azterketei begira, informazio hau helarazi nahi dizugu:

- 1.- Zure laguntza eskatzen dizugu kutsatzeen **prebentzioan laguntzen** jarrai dezazun. Ildo horretan, eskolan azterketak egiteko behar duzun denbora bakarrik egoteko eta segurtasun-neurriak zorrotz errespetatzeko eskatzen dizugu. Kontuan izan probak egiten diren bitartean aireztapen konstantea egongo dela eta, beraz, berotzen duten jantziak eraman itzazu.
- 2.- Covid-19a duten ikasleei, aurreko ikasturtean egin zen bezala, proba egiteko aukera emango zaie: azterketa guztiak presentzialak izango dira, data berriak irakasle arduradunak erabakitzen dutenaren arabera izango dira.
- 3.- Covid-19ak jota ba zaudete, hau da etxean antígeno proba **positibo ematen badizu, jakinaraz iezaiozu zure ikastetxeko Covid arduradunari**, Alaitz Yoldiri mezu baten bitartez alaitz_yoldi002@ehu.eus.

Gaur egun POSITIBO emanda zer egin behar duzu:

- Sintomak badituzu etxean antígeno test bat egin beharko duzu eta positibo ematen badu, etxean konfinatuta gelditu beharko zera 7 egunez.
- Osakidetza ez dizu jarraipenik egingo, zure kabuz jarraitu beharko dituzu prebentzio neurri guztiak. Ez duzu Osakidetza formulariorik bete behar. Eskolan, hemendik aurrera, ez dugu Osakidetza SMSrik eskatuko (*bakarrik praktiketan daudenei, PCR negatibo batekin joan behar direlako praktiketara*).
- Beraz 7 egun pasata ez badituzu sintomarik konfinamendutik atera zaitezke. Ez duzu berriz ere antígeno probarik egin behar. *Sintomak badituzu 7 egunak igarota Covid arduradunarekin hitz egin.*
- Eskolaren partetik eskatuko dugun ziurtagiria positibo ematen duzuen momentuan:
 1. “COVID ADIERAZPENA” inprimakia betetzea, emailen atxikitua dagoena
 2. Etxean egindako antígeno proba positiboaren **argazki bat**, zuen izenarekin eta zuen mugikorrarekin egin da.

Behin eginda Covid arduradunari bidali. alaitz_yoldi002@ehu.eus.

IKASLEA PRAKTIKETAN DAGOENEAN: Egin beharrekoa:

1. Positibo ematen badezute, Alaitz Yoldiri abisatu. Alaitz_yoldi002@ehu.eus
2. "COVID ADIERAZPENA" dokumentua beteta bidali. Orain ez da beharrezkoa etxean egiten duzuen proba bidaltzea, Osakidetzakoa bidaliko didazuelako.
3. Alaitzek, Osasun Lanakoei bidaliko die zuen kontaktua. Osasun lanakoek zuekin kontaktuan ipiniko dira eta 7.egunean **ANTIGENO PROBA** bat egingo dizuete:
 - a. Positibo ematen badu (momentuan ematen dizuete emaitza): Hortik hiru egunetara beste bat egingo dizuete.
 - b. Negatibo ematen badu, zuzenean praktiketara joan zaitezke.
4. Behin negatiboa eman da, Alaitzi emaitza bidali. Osakidetzak bidalitako SMSa.

4.- Gogoratu Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzu, ez duzula zentzura joan behar. Jarraitu argibide sanitarioak.

Ikasle guztiek etika eta zintzotasun akademikoarekin eta irakaskuntzaren martxa onarekin duzuen konpromisoan konfiantza dugu; beraz, aldeztu aurretik eskertzen dizuegu zuen lankidetzak, azkar eta modu egiazkoan zuen egoeraren berri emanez. Horri esker, pandemia gorabehera, ikasle guztiak ahalik eta egoera onenean ebaluatu ahal izango dira.

***Erabilitako dokumentuak:**

- *PROTOCOLOS DE VIGILANCIA EPIDEMIOLÓGICA. CORONAVIRUS SARS-COV-2. Departamento de Salud. Gobierno Vasco. Última revisión :7 de enero de 2022.*
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia_protocolos/es_def/adjuntos/Protocolo-Coronavirus-SARS-CoV-2-es.pdf
- *UPV/EHU-k bidalitako agiriak.*
 - *COVID-19 pandemian irakaskuntza eta ikaskuntzaren jarraipen batzordea. Comisión de seguimiento de la enseñanza y aprendizaje durante la pandemia de COVID-19.*
 - *COVID ADIERAZPENAK.*
 - *Ikasleentzako mezua- mensaje alumnado.*